



Farmacéuticos

Consejo General de Colegios Farmacéuticos de España

DEKALOGOA

PERTSONA MIGRATZAILEEK
OSASUN ARRETA ETA
ARRETA SOZIOSANITARIOA
JASOTZEKO AUKERA
BERDINTASUNEZ IZAN
DEZATEN GOMENDIOAK



10 gomendio

pertsona migratzaileak osasun arreta eta arreta soziosanitarioa modu ekitatiboan jaso dezaten

Pertsona migratzaileen osasuna bermatzeak oinarrizko eskubideak babesteaz gain, gizarte osoaren osasunean ere eragiten du, komunitatean eta osasun-sisteman duten paperaren tamaina eta garrantzia kontuan hartuta. Hala ere, Espainiako osasun-arretak eta arreta soziosanitarioak zailtasunei aurre egin behar die **zerbitzuen arteko zatiketa, lurraldeen arteko desberdintasunak eta administrazio- eta kultura-oztopoek** eragindaeta zainketetara iristea eta jarraikotasuna bermatzeko.

Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren Gizarte Aholkularitzako Kontseiluak, Lanbide Farmazeutikoaren Gizarte Estrategiaren barruan, "Pertsona migratzaileentzako osasun-arreta eta arreta soziosanitarioa Espainian: sarbidea, koordinazioa eta ekitatea" azterlana egin du, Bartzelonako Osasun Globaleko Institutuarekin (ISGlobal) batera.

Jarraian, azterlaneko dokumentuetan laburbildutako hamar gomendioak azalduko dira, persona migratzaileentzat sistema soziosanitario inklusiboagoa, koordinatuagoa eta eraginkorragoa lortzeko bidean aurrera egiteko:

1. Osasun-arreta eta zerbitzu soziosanitarioak jasotzeko ARAUDIA HARMONIZATZEA

Unibertsaltasuna bermatuko duen arau-esparru homogenea sortzea migratzaileei osasun-arreta eta arreta soziosanitarioa eskaintzea, lurraldeen arteko aldeak murriztuz.

3. Arretaren jarraikotasuna eta KOORDINAZIOA INDARTZEA

Iristen direnetik erabat gizarteratzen diren arteko arreta-ibilbide etengabeak bermatzea, mailen edo baliabideen arteko etenak saihestuz. Horretarako, osasuna, gizarte-zerbitzuak, enplegua, hezkuntza, justizia eta etxebizitzaren arteko deribazio-zirkuituak ezar litezke.

2. Diskriminaziorik gabeko laguntzarako jardunbide egokiak bermatuko dituzten POLITIKAK ETA PROTOKOLOAK EZARTZEA

Politikak, jardunbide egokiak eta protokoloak zehaztea eta ezartzea, ekitatearen eta diskriminaziorik ezaren irizpideekin, autonomia-erikidego guztietan, pertsona guztiei arreta emango zaiela bermatzeko, inolako desberdintasunik egin gabe administrazio-egoeraren, jatorriaren, etniaren, generoaren edo egoera sozioekonomikoaren arabera.



4. FARMAZIA KOMUNITARIOA SUSTATZEA, hurbileko AGENTE SANITARIO ETA SOZIOSANITARIO GISA

Komunitatearekiko hurbiltasuna eta farmazialarien trebakuntza eta pres-takuntza baliatzea osasun-hezkuntza, tratamenduekiko atxikimendua eta eskura dauden baliabideei buruzko orientazioa hobetzeko. Farmaziak osasun-informazioa eskuratzeko desberdintasunak murrizten eta gizarte-radar gisa jokatzeko lagundu dezake.

6. Laguntza eskuratzeko PROZEDURAK SINPLIFIKATZEA ETA BIZKORTZEA

Osasun-txartela lortzeko itxaro-te-denborak eta administrazio-be-tekizunak murriztea, izapidetze-al-dietan arreta emango dela ziurtatuz gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko prozeduren bidez.

8. KULTUREN ARTEKO BITARTEKARIAK eta interpreteak langile-zerrendetan barneratzea

Kulturarteko bitartekariak eta interpreteak egitura-profesional gisa aritzea, zuzeneko arreta eta zerbitzu eta tresna zehatzen plangintza kulturen arteko ikuspegitik errazteko.

5. Behar konplexuak GOIZ DETEKTATZEA

Baheketa-tresnak eta protokoloak ezart-zea osasun-, gizarte-, lege-, lan- eta egoitza-arriskuak identifikatzeko, osasun-eta gizarte-zerbitzuen arteko koordina-zio-prozeduren bidez. Horri esker, deriba-zio bizkorak eta pertsona migratzaileen beharren aborlatze integrala egingo dira. Koordinazio horretan, farmaziak eginkizun garrantzitsua bete dezake, gertutasunaga-tik eta ahultasun-egoerak, osasun-beha-rren aldaketak eta komunitatean sortzen ari diren arazoak garaiz detektatzeko gaitasunagatik.

7. Profesional sanitarioen eta soziosanitarioen kulturarteko PRESTAKUNTZA ETA GAITASUNAK INDARTZEA


Profesional sanitarioak eta soziosanitarioak gaitzea sarbide-eskubideetan, diskrimina-ziorik ezan, gaitasun kulturaletan eta ibilbi-de integratuen kudeaketan. Prestakuntzak barne hartu behar du laguntzarako eskubi-deari, erakundeen arteko koordinazioari, deribazio eraginkorreari eta joera inplizituen prebentzioari buruzko legedia.

9. KOMUNITATEAREN eta gizarte zibilaren PARTE HARTZEA INTEGRATZEA

Osasun-koordinazioan eta koordinazio soziosanitarioan gizarte zibileko erakundeak sartzea (migratzaileen elkarteak, pazienteen elkarteak, GKEak, etab.) etorkinen behar espezifikoien eta osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen arteko zubi-lana egiteko.

10. FINANTZIAZIO EGONKORRA eta epe luzeko plangintza estrategikoa ZIURTATZEA

Aurreko neurri guztiak modu jasangarrian ezartzeko aukera emango duen aurrekontu-plangintza sendoa garatzea, aldi baterako programekiko edo ekimen pribatuekiko mendekotasuna saihestuz. Inbertsio publikoa politiken jarraikortasuna eta eraginkortasuna bermatzera bideratu behar da, eta prebentzio-plan estrategikoak finantzatu behar ditu, modu erreaktiboa bakarrik ez funtzionatzeko.



Gizarte Aholularitza Kontseiluaren partaideak:



Sartu dokumentu osora
gure webgunean
www.farmaceuticos.com